

Pil bi ean

Euskera Elkartea
Soraluzeko Aldizkaria 2000ko maiatza 24. alea

ADI!!
Ekainaren 2an
Kantu Afari
Herrikoia
Plaza Barrixan
ikusi Pil-Agenda



Plaentxiar misiolariak
“Lagunduz.”



Domekan ospatuko da
Euskal Jaiak



Aurtengo Ezoziko jaiak
Ekainean

Gol S.A. industriak




Tornileria-estanzazioa eta extrusioa hotzean



Tfnoa. 943-752100
FAX. 943-751712

20590 SORALUZE



Eperako aurrezkian
lasaitasuna ematen
dizugu

Errentagarritasun eta
erabilgarritasun handia



**Aurrezki
Zabala**

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Erantzun
zuzena

Kolaborazioa


**Euskera da
gure territorio
libre bakarra**

Horrela dio kanta batek, eta badira arrazoiak esateko euskera ez dela hizkuntza sexista. Euskeraz hitz egiten dugunean gehienetan ez dugu genero bereizketarik egiten eta horrela adibidez "lagunak" esaten dugunean mundu guztian aipamena egiten dugu inor kanpoan utzi gabe.

Baina badira arrazoiak kezkatzeko. Azkenaldi honetan plaentxiatar askorengan gero eta nabarmenagoa den joera zabaltzen doa; bi adibide besterik ez ditut jarriko. Alde batetik, neska-mutil, seme-alaba, guraso eta abarren ordeztu mutil, seme, aita eta abarrak entzuten ditugu bilera, taberna, kale, kantoi eta leku guztietan. Euskeraren ezaugarrietariko bat ez bada, saiatu geu genero bat (munduaren erdi gutxi gorabehera) kanpoan uzten? Non gelditzen gara zerrenda luzea osatzen dugun neska, alaba, ama,... guztiak?

Bestetik hikarena dugu. Jakin badakigu mintzakidearen genroa kontuan hartzen dugula hikaz berba egiterakoan; hau da, emakumearekin hitz egiten dugunean "joango gaittun?", "ikusijonat", eta gizonazkoarekin "joango gaittuk?", "ikusijuat". Orduan zergatik "gaittuk" "juat" denekin erabili bereizi behar denean? Baliteke honen arrazoi bat ezjakintasunarena izatea, baina horrek konponbide erreza du: Ikasi besterik ez da egin behar.

Eskura ditugun baliabideak ezin hobekak dira goiko izenburu horrek dioena bere horretan mantendu nahi badugu, berdintasunean bizi nahi badugu.

Ez gaitzen hasi aldrebesten milaka eta milaka urtetan gordetako esperientzia eta jakinduria.

Maite Etxeberria Arizaga
15.362.624

Editoriala

Askotan esan ei da, Plaentxia moduko herrixetan sekula ez dala ezer organizatzen, Plaentxia moduko herrixak hilda dagozela, era desberdinetako aktibidadiak topau ahal izateko kanpora urten bihar dala, eta beste gauza asko... Egia da batzuetan holako gauzeri arrazoi emotia besterik ezin dala egiñ.

Baina beste askotan pasau be, pasatzen jaku plaentxiatarri, gure ohitura pasibuakin segittuta, eta askotan enterau ez garala aitzakitatz ipinita, herrixan antolatzen diran gauza asko ez doiazela gurekin pentsatzia. Azkenaldi honetan, ematen dau herri mailan behintzat móbimentu apur bat sortzianren eta bide batez euskera bultzatziarren hainbat ekitaldi eitten diarduela.

Horregaittik hemendik dei eitten dotsagu benetan herrixa kulturalki eta sozialki berpiztu nahi daben guztieri uda parterarte antolatuko diran ekitaldixetan parte hartu deixen. Ekitaldixen barri izango da kalia (normalian kasorik be eixen ez dotsegun kartelen bittartez...), baitxa **Pil Pileanen** bittartez be.

Holako txapadia eta gero hau irakurtzeraino heldu bazara, pentzauk dozu oingoz, udaberriko eguzki epelak burua gehixegi berotu doskun edo... Igual bai! Pentzau biharreko gauzia dala eta txapela jantzi biharko dogu hurrenguan: "Txapela buruan eta ibili munduan!" (Betsela kalbia be erre...).

Telegrapak: Normalean editoriala humore kutxuan joan ohi da, baina badira zenbait gauza (goikoak alegia) esan gabe gelditu ezin direnak, esaera zaharrak esaten duen moduan: "Platerrean babarrunak daudenean jan, eta harrikoxxorak daudenean miazkatu" (anonimoa). **STOP.** Egia esateko aurreko esaera geuk asmatu dugu, hala ere denborarekin zahartuko da. **STOP.** Zorionak! Azkenean badirudi Gila zubiko autobusaren informazio makiltxo laranja berri duela. **STOP.** Juantxorekin jokatu beharreko desafio ospetxua berriz ere atzeratu egin da, aurkakoei kakalarria sartu omen zaie. **STOP.** Formalak izan eta hurrengo alerarte!



Argitaratzailea: *Pil Pilean Euskara Elkarte.* Frontoi kalea 5. behe, PK 27 20590 Sorluze. Telefona 943 75 13 04

Lan taldea: *Egoitz Unamuno, Iñaki Alberdi, Eduardo Pombar, Gurutze Ariznabarreta, Amaia Agirre, Elene Alberdi, Oier Oregi, Gorka Prieto, Aitor Madrid, Xuban Katalan, Sabin Mendizabal eta Ander Epelde.*

Publizitatea: *Iñaki Alberdi eta Elene Alberdi. (943751304 tel.)*

Banaketa: *Pil Pilean*

Tirada: *1700 ale.*

Inprimategia: *Gertu Koop.*

Lege-gordailua: *SS-537-2.000*

C.I.F.-a: *G20696563*

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Denda berria

T
textil
agirrezabal
A

• Alfontzak eta moketak (fabrikatik zuzenean)
• Hondartzarako toailak (belgiarrak)

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxorako gaiak

AIT-ITV eta autobus geltokitik 100 metrara

Gotzon Agirrezabal
Tel/Faxa: 943 75 72 52

ORDUTEGIA
astelehenetik zapatara:
10:00-13:00
eta 16:00-20:00.

Amilaga Industrialdea, 5 - BERGARA - Renault-en ondoan

Zer da kultura?

Honi erantzutea benetan ez dela erraza. Hemen bai ematen dela bete-betean euskal esaera: " zenbat buru, hainbat aburu".

Garbi egon beharko lukeena da, aurretik, euskal hitza bada-rama, kultura hori euskaraz burutua edo mamitua izango dela, ezen beste guztia erdal kultura izango baita, nahiz eta euskal gaiak ukitu edo jorratu, eta hemen ez dago erdibiderik, edo bagara edo ez gara.

Jakinekua da, gizakiak egiten duen dena kultura dela, gizakia produktu kulturala dela, alegia. Baina produktugai hori mamitzerakoan erabiltzen dugun hizkuntzan dago gakoa, horretxek mugatu eta sailkatuko baitu delako kultura hori. Ikusten denez kulturak hizkuntzarekin duen lotura bereiz-tezina da.

Azken baten kultura pentsamendua besterik ez da; erdaraz pentsatuz gero, (zoritxarrez, gaur egun Euskal Herrian ehun-eko portzentai haundian gertatzen zaiguna) erdal kultura jorratzen dihardugu, euskal kulturaren kaltetan jokatu. Eta zentzugabekoa da euskal kultura erdaraz mamitzea; zerbaitek huts egiten du.

Gaur egun, zeinek ez du ikusten homogenizazio batera goa-zela, hots kultura guztiak berdintzera? Honek ekarriko duen galera pentsa ezinezkoa da, oso aberatsak, eta halaber txikiak, diren kultura asko eta asko ezabatuak izango dira uniformiza-zioaren aurrean, mundu zein gizaki ekonomiko honetan diruak agintzen baitu.

Euskal Herrian ere bide beretik goaz, aurrerapenaren ize-
nean geure kultura propio eta bereziari izugarrizko ostikadak emanez. Kanpotik datorren guztia onartzen dugu, nahita edo nahigabe, gurea baino hobea delakoan, gure aberastasunak albo batera utziz. Zer gertatzen zaigu? Ahuntzaren gauerdiko

eztula. Gure nortasuna eta izaera galtzen ari gara, arima sal-
tzen, irudimenezko aurrerapen baten izenean.

Lehenengo urratsa emana dago, euskal kultura izatetik kul-
tura sasi-elebiduna izatera igaro baikara, gure herrian arrotza den beste kultura bat onartzuz (etxerako kaltetan). Honi batzuk mestizaia deitzen diote; kaka zaharra! Kultura ahula zapaltzea mestizaia bada, hor konpon Mari Anton! Sar ezazue kultura berri hori dakizuen tokian.

Amerikan gertatzen dena erakusle nabarmena da, ez baita mestizaiarik ematen, kultura suntsiketa hutsa baizik. Horre-
gatik, ez dago ezer ospatzerik, baina bai zertaz lotsatzerik. Baina hemen ez da ezer gertatu; munduak bere bidea darrai.

Hemen Amerikako gertatzerik nahi ez badugu, hortzak era-
kuts diezaizkiogun kultura sasi-elebidun horri, azken baten gure hondamenerako, gu erdalduntzeko burutua baitago.

Beraz, gelditzen zaigun bide bakarra hil ala bizikoa da; eus-
kal kultura lantzen saiatu behar dugu, euskaldun jokatu, geu-
re-geurea den hori gordetzeko eta belaunaldiz belaunaldi on-
dorengo euskaldunei emateko. Giltza badakizue non dagoen, ezta? Beraz, ekin eta jarrai!

Ander Epelde

Kantu afaria

Pil Pilean eta Udalaren eskutik

Dantza taldea, Udaletxeko langilegoa, abesbatza, Pil Pileaneko lantaldea, bertso eskolako ikasleak...kantari izango dira. Txartelak tabernetan salgai.

Oharra

Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta bere datu pertsonalak agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, **Pil-Pilean**-ek horretarako eskubidea izango du.

Adi!!

Pil-Pilean 1.700aleko tirada

Iragarkia ipintzea nahi?

Deitu 943 75 13 04ra

ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA

Benito

Anaiak

Altzariak



Santa Ana 26 tfnoa: 943752047

Gure herrian gas naturala jartzea zer iruditzen jatzu?



Julita Ibarzabal
53 urte
Aseguru agentia

Interesgarria iruditzen jata, orain, kaleak konpon-tzen ditzuten bittartian guzti hau jasan biharko dogu, baina gero inportantia izango da. Erosua, eta biharrezkua dala uste dot, gaiñera merkiagua izango da.

Erosua da, jendia ohi-ttuta dago lehengo butanua-kin, beti butaneruan on-doren ibili bare gero ber-tan eukiko dogu uran mo-duan. Butanuak berezkua dauka gohittik bera juatia, eta honek ihes eitten badau gora doia, eta gaur egun erretzeko aparatuak kanpuan ipiniko dira, or-duan, lehen zeguan arris-kua gutxituko da.



Gustabo Laskurain
56 urte
Tornerua



Iñaki Larrañaga
33 urte
Almazenerua

Orain gogaikarria da ez zabizelako gustora, bai-na biharrezkua da eta ba-tez be erosua, nik orain bostgarren pisuraino igo bihar dot bonbonia...

Oso ondo, beharrezkua da. Orain kale guztiak zu-latuta dare, baina gero do-tore ipiniko dittue, adoki-na barri barrixa, loratua ta...



Jazinto Gantxegi
73 urte
Jubilatua



Andoni Calles
24 urte
Mekanikua

Bai, gauza ona da, modernizau egin bihar gara ez? Poliki poliki. Erosua da, ez ibiltziarren egunero bonboniakina...

Ondo pentsatzen jata. Erosua da, butanuaz ahaz-tuko gara. Gaur agun daroiagun bizimodurako beharrezkua ikusten dot.



Aitziber Atxa
26 urte
Administrarixa

ARMENDIA JATETXEA

sukaldaritza tradizionala

Bataioak, jaunartzeak
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11

Tfnoa: 75 10 02

SORALUZE

ATXOLIN TABERNA

Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Tfnoa: 943752131

SORALUZE

Lagunduz Soraluze solidarioa

Gure herriak betidanik erakutsi du elkartasuna eta laguntza, beharrea dauden pertsonen, ala eskatu zaionean. Bai diru laguntzak emanaz (jakina da, dirua batzeruzkoan Plaentxiak erakutsi duen eskuzabaltasuna) eta baita eduki duen solidario kopuru nabarmena ere, biztanle kopurua kontutan hartzen badugu. Egun, hamaika misiolari ditugu hortik zehar sakabanatuta.

Eskolako umeak Lagunduz antolatutako azoka batean

Aitorrena

Plaentxiako elkartasunaren beste erakusgarri bat *Lagunduz* taldea da. Munduko txiroen gorabeheretaz arduratuta sei pertsona bildu eta 1998 abenduan lan taldea eratzea erabaki zuten herriko abadearen laguntza ere eduki zutela. Bere lehenengo helburua soraluzetar misiolariekin harremanetan sartzeta da, eta jakina hauek laguntzea, dituzten beharretan. Elkartasun talde honen beste harreta puntu bat kanpo zorra kitatzeko konua da, horretarako, herrian gai honen inguruan sortu zen taldearekin harremanetan jarri ziren, elkarrekin lan bateratu bat burutzeko. Azken gai honetan, herritarrak informatzeko kanpañan partehartze zuzena izan zuten *Lagunduz*-ekoek.

Misiolariak laguntzeko helburuarekin jaio berri den lantalde honek, hainbat ekintza eraman ditu aurrera. Hirugarren Munduaren gainean erakusketa antolatu izan du. Bertan, gure misiolarien berri ematen zen, hauek egiten duten lana eta eurek aurkitzen dituzten bizi baldintzak zelakoak diren azaltzen zirelarik. Guzti hau gizarteak, misioek egiten duten lana ikus dezan. Honetaz gain, misiolariak bizi diren herrien berri ere ematen zen, non dauden, nola bizi diren eta zer ohitura dituzten ere, era didaktiko batean erakutsita. Erakusketa honek herritarren artean interes handia sortu zuela esan beharra dago, eta bere alderdi hezitzailea ikusita eskoletako haurrek guzti honen berri izateko aukera izan zutela ere bai. *Lagunduz*-ek egin dituen beste ekintzen artean, azoka txikiak antolatzea izan da. Orain arte hiru izan dira aurrera atera dituenak eta arestian agertu den erakusketa bezala merkatutxo hauek arrakastatsuak izan dira. Azoka hauetan salgai izan

diren gaiak, herrialde pobreek ekoiztutakoak dira. Merkatu hauetan lortu zen dirua zuzenean bitartekariak txintik jasogabe produktuak egin zituztenei ordaindu zitzaizkien.

Plaentxiar talde honek, beste erronka bat du orain esku artean: Maria Luisa Makinai soraluzetar misiolaria, Panama aldeko eskualderik behartsuenetako batean lanean dabilena, lurralde haietan duten beharretako batean laguntzea. Maria Luisak dioenez, sarritan jaki pila jasotzen dute hango behartsuen artean banatzeko baina paraje haietako eguraldia dela eta, egun gutxitara ia dena alperrik galtzen zaie, eta hau ekiditeko ezin bestekoa ikusten dute izozgailu bat lortzea jakiak luzaroago gorde ahal izateko. *Lagunduz*-etik izozkailua

Izozkailu bat Panama aldera bialtzea da Lagunduz-ekoen nahia

erosteko diru bilketan hasiak dira, herriko instituzioetatik laguntzak jasoko dituztela agindu zaie baina tramankuluaren salneurri altua ikusita (miloi eta piku pezeta) dirua biltzeko beste bide batzuk aztertzen hasita daude. Dirua biltzeko, *merkadillo* antzekoak egitea pentsatzen dute, horretarako; liburu, disko, erropa zaharkituak eta hauekin zer eginik ez dakitenei. *Lagunduz*-ekoekin harremanetan jartzea eskatzen zaie, (*Emilitarekin hitz egin*).



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

ALAITZ TABERNA

**EZOZI ETORBIDEA
TFNONA: 943751190
SORALUZE**



Hamaika soraluzetar misiolari

Artikulu hasieran aipatutako moduan bezala baditugu hainbat herrikide mundu zabalean barrena sakabanatuak, txirown alde, lan eta lan. Hamaika misiolari ditugu eta gure herri honen biztanle kopuruari erreparatzen badiogu esan dezakegu, bildurrik gabe, ez dela ez gau erdiko ahuntzaren ezstula.

Misiolariak Ameriketara eta Asia aldean lanean diardute eta hurrenez hurren hauek dira: Ameriketara daudenak: **Jasone Lete**, karidadeko karmelita Txileko Santiagon. **Evarista Aristimuno**, dominika Kiton (Ekuador). **Maria Teresa Eloegi**, kordimariana Rio de Janeiron (Brasil), **Berta Sierra**, dominika Dominikar Errepublikan. **Maria Luisa Makinai**, merzedaria Panaman. **Maria Eugenia Arizaga**, trinitaria Buenos Airesen (Argentina). **Imanol Alberdi**, pasionista Puerto Ricon. **Jose Maria Gallastegi**, jesuita Venezuelan eta **Antonio Guridi Ugalde**, seglarra hau ere Venezuelan. Asian daudenak: **Ignazio Oregi**, jesuita Japonen. **Luis Remigio Bolunburu**, Jesuita Taiwanen. Eta azkenik eta orain gutxi hildakoa **Ramon Bereikua**, marista Japonen.

Plaentxiar hauek lana egiten duten tokiak ez dira ez

Plaentxiar misiolariak Asia eta Ameriketara aurki ditzakeguz

Soraluzetar presoak gose greba mugagabeen

Pedro Jose Etxeberria Lete eta Lurdes Txurruka Madinabeitia gose greba mugagabeen daude beste hainbat euskal preso lez. Lurdesek apirilaren 24an ekin zion grebari eta Pedro Josek berriz maiatzaren 1-ean.

Sufritzen duten egoera salatzeke asmoarekin hasi dute greba hau, komunikazioen interbertsioak, tratu txarrak, ikasketarako sailtasunak, osasun asistentzia eskasa... eta beraien eskubideak aldarrikatzeko eta errespetatuak izan daitezen eskatzeko.

Herrian hain bat ekimen burutu dira presoena egoera erakusteko eta salatzeke: enkarteladak manifestazioak, eta kontzentrazioak. Soraluzetar preso hauekin elkartasuna azaltzeko ere egunero kontzentrazio ixilak egin izan dira udaletxepean. Ekimen hauek Soraluzeko Senideak eta Amnistiaren batzordeak antolatuak izan dira.

Plaentxiar presoena egoera espetxeetan

Lurdes Txurruka Madinabeitia

1994ko azaroaren 18-an Basurtoko ospitalean atxilotua izan zen. Orduetik hona pasa dituen kartzelak hauexek izan dira: Langraitz, Valencia, Carabanchel, Soto del Real, berriki Avilara eraman dute. Lurdesek komunikazio denak interbenituak ditu, ahozkoa baita eta idatzizkoa ere. Telefonoz etxera bi aldiz deitu dezake, eta elakarrizketak grabatuak izaten dira. Gutunak erretentzen zaizkio edo ez ditu jasotzen eta kartzelako funtzionarioek gura dutenean jasotzen ditu, normalean oso atzeratuta heltzen zaizkiolarik. Trasladoetan tratu txarrak jasan ditu, adibidez medikura joateko katxeak eta eskusartzeak pairatzen ditu. Gaur egun moduloz aldatu dute, kartzelaren kanpoan presoekin solidarizatzen zen egindako ekintza baten ondorioz.

Bere giza eskubideak errespetatzeko, eta bizi duen sakabanaketa, salatzeke, hiru gose greba eta bestelako protestak egin ditu.



Evarista Aristimuno Kitoko ume batekin eta Ramon Bereiku (erdian baetaurrekoduna) lagunekin

oporretara joaten garen horietakoak bezalakoak, ez horixe. Bi adibide jartzea nahikoa da hori ikusteko. Evarista Aristimunok Ekuadorreko gartzeldegia batean lanean dihardu hango presoek gizarteratzen laguntzen eta Maria Luisa Makinai Panamako eskualderik behartsuenetako batean gizaseme eta gizalabei bitzita duinago bat eramaten laguntzen. Herrira bisitan etorri izan direnean hitzaldiak eman dituzte misiolariak, eta katekesian dabilzan umeak eta hain ume ez direnak ere, hitzaldietan misiolarien eta euren artean sortu izan den adiskidetzatza mantendu asmoz gutunak bialdu izan dizkiete elkarri.

Pedro Jose Etxeberria Lete

1989ko apirilaren 6an atxilotu zuten. Egon den espetxeak hauek dira: Alcala Meco, Herrera de La Mancha, Valdemoro, Cuenca, Malaga, Carabanchel, Ibiza, Plama de Mallorca, orain Castellonen dago. Pedro Josena egoera eta Lurdesena, komunikazio aldetik oso antzekoa da. Euskeraz denean okerragoa, oztopoak handiagoak dira eta. Kartzelan "lehen maila" izeneko araudia aplikatzen diote, honek legalki onartuak dauden ekintzak aurrera eramateko trabak ipintzen dizkiolarik. Burutu ditzakeen ekintza bakarren artean ikasketak eta



Herrian burututako presoena aldeko eskualdeko martxa

eskulanak daude baina hemen oztopoak nagusi dira, liburuak, azterketak... berandu heltzen zaizkiolako. Hilean, senitartekoein bi orduko bis a bis bat du eta aste barruan bakarrik, honek bere senideendako dakarrenarekin, lana utzi behar izaten dute-lako.

Guzti hau salatzeke lau gose greba, komunikazio etenak eta abar, egin ditu.

Aitorrena



by Egoitz Unamuno

ZER
BERRI

Jose Luis Lopez de Lacalleren hilketak gaitzesteko konzentrazioa

Maiatzaren 8an, Euskal Herriko beste herri askotan bezala, Gesto por la Paz talde bakezaleak deituta, herritar asko bildu ziren Plaza Berrian ETA erakunde armatuaren azken hilketak gaitzesteko. Konzentrazio ixil honekin, bertaratu zirenek, ETA ren hilketak salatuta eta bakearen beharra aldarrikatu nahi izan zuten.



Artxibo irudia

Itzaropen mezuak 2.000. Aberri Eguneko ekitaldian



Urrats dantza taldeko dantzariak ekitaldia amaitu ostean

Joan zen apirilaren 23an alderdi abertzale denek (EAJ, EA eta EH-k) Aberri Eguna ospatzeko elkarrekin herrian egin zuten ekitaldia. Eguraldia lagun, ekitaldia eguerdi partean hasi zen alkatearen hitzalditxo batekin. Ondoren, Urrats dantza taldeko dantzariak, Agurra eta Ikurrin Dantza dantzatu zituzten udaletxe aurrean eta honen ostean, udaleko balkoitik zazpi bertso kantatu zituen "bertsolari" gazte batek, itzaropenerako arrazoiak badaudela azpimarratuz. Azkenik, udaletxe azpian egin zen sinadura bilketak batekin amaitu zen herriko ekitaldia, hortik aurrera, alderdi bakoitzak leku ezberdin baten egin zituen arratsaldeko ekitaldiak.


Presoak Euskal Herriratzearen aldeko ekimenak ugaritzen

Euskal presoek espainia eta frantziako gartzelatan bizi duten egoera, gero eta larriagoa dela ikusita azken hilabete hauetan asko izan dira gure herrian Euskal Presoak Euskal Herriko espetxeetara ekar ditzaten eskatzeko egin diren ekimenak. Konzentrazioak egunero egitetik hasi eta eskualdeko martxa, baraualdi, kartel ezarketa, akanpada eta beste mila ekimenek bat egin dute presoek gose grebaren bitartez egiten dituzten eskakizunekin. Aurrera begira, orainarte bezala edo indartsuago jarraitzeko, herriko talde guztiekin bilerak egiten diardute Senideak taldeko kide batzuk. Honela atxikimenduak lortu eta batez ere talde bakoitzaren konpromiso maila zenbatekoa den zehaztu nahi dute, hortik abiatuta ekimen bateratuak aurrera eramateko. Senideak elkartetik, dei bat egin nahi diete herritar denei, ezberdintasun politiko eta ideologikoen gaineratik dauden aldarrikapen hauekin bat egin dezaten eta antolatzen diren ekimenetan parte hartu dezaten.



LAKUESTA OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTAK
IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK
ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU

SANTA ANA 22 20590 SORALUZE
TEL: 943753059 (GIPUZKOA)





Ezoz

Hemendik aurrera Ezoziko jaiak ekainean izango dira

Orainarte abuztuan ospatu izan diren jaiak, hemendik aurrera ekaineko bigarren astebukaeran ospatzea erabaki dute Ezoziko jaien antolatzaileek. Aldaketa hau egiteko arrazoiak, pentsatzekoa den moduan, abuztuan biltzen den jende kopurua oso urria izaten dela da. Antolatzaileen ustetan, hobe da jaiak eta ospakizunak jendeari ondo datorkion datetan jartzea, egidako ahaleginak dagokion saria jaso dezan. Hori bai, antolaketan diarduen jendeak adierazi digunez, Ama Birjinaren Eguna abuztuan ospatzen jarraituko dute eta egun horretan meza emango da ermitan. Beraz, aurtengo Ezoziko jaiak oso arrakastatsuak izatea espero da. Halaxe izan dadila! (Ezoziko jaien egitaraua 19. orrialdeko Pil Ajendan daukazue oso osorik)



1924 Ezoziko Plaza. Ez da erreza izango orduan bezain jai arrakastatsuak lortzea baina...

Jenede asko elkartu zen Aste Santuan Ezoziko ermitatik bera egin zen proseinuan



Fededun asko bildu ziren prozesiora

Aste Santuko ospakizun ugarien artean, joan zen apirilaren 20an prozesioa egin zen Ezozitik bera. Gurutzeta bizkarrean hartuta eta herriko apaiza lagun zutela, Ezoziko ermitan meza entzun eta erreza ostean, oinez, prozesioan jetsi ziren kalera. Esan behar da, jende mordoxka bildu arren, gehientsuenak edadetuak izan zirela eta gazte gutxi urretaratu zela. Gazteek, fededun edo fedegabe, kanpora joan edo ohean gelditzea nahiago izan zuten nonbait.

Lanbro giroa suertatu arren jende asko Hirukurutzeta eguneko ospakizunetan

Joan zen maiatzaren 7an Hirukurutzeta eguna ospatzeko ekitaldietara jende mordoxka hurbildu zen, eguraldiak nahi beste lagundu ez bazuen ere. Lanbroak kukildu ez eta gehienbat Elgoibar, Osintxu eta Soraluze aldetik bertaratu zirenek, lehenengo ohitura den bezala Bitoriano Gandiaga fraile ezagunak emandako meza entzun, eta ondoren, salda eta txorixoari (aurten ordainduta) ardoz lagunduta, barrenak gozatu ahal izan zituzten. Arratsalde partean ere izan zen zerbait baina eguraldi txarra zela eta ez zuen beste batzuetan batzen den jende multzorik batu.



Jende mordoxka, Bitoriano gandiagak eman zuen meza entzuten

Laburrean

Beste auto istripu bat poligonoko irteeran

Joan zen maiatzaren 6an beste auto istripu bat izan zen poligonotik barianterako irteeran. Autoan zijoazen eta istripua jasan zuten autoetako gidariak plaentxiarrak ziren eta eurek eta eurekin zijoazen gaintzeko lagunek ere, zauri handi xamarrek jasan bazituzten ere, zorionez poliki poliki oneratzen omen doaz. Besarkada bat eta animo **Pil Pileanekoon** partetik!

Azken hilabeteetan ertzainek tabernak itxi dituzte larunbat goizaldeetan

Azken hilabete hauetan, astebukaeretan tabernak itxeko ezarri zen legedia betearazteko, Ertzainak goizeko laurak ingurutik aurrera tabernak itxi dituzte. Tabernariak eta bezeroak ados egon ez arren, zarata handia sortzen dela arrazoituz, ertzainek tabernak itxeko aginduak eman dituzte eta larunbat batzuetan tabernak itxi dira goizeko eguzkiak kaleak argitu aurretik.



Gobernu bartzordeak

Eduardo Pombar

2000ko apirilaren 17an egindako ohiko saioa

Beste gauza batzuen artean honako hauek erabaki ziren:

- **Irazola S.A** ri industrialdeko 13.zenbakian kableak kanalizatzeko, lan eremua behar den moduan senalizatu eta zola hasi aurretik zegoen moduan utzi beharko duelarik.
- Errebal kaleko 9. Zenbakian taberna zabaltzeko baimena ematea erabaki zen **Itziar Argarate Maiztegiri** jabetza aldaketak eragindako tasak ordaindu behar duelarik aurrez.
- **Jose Etxeberria Alberdi** Jaunari laguntza ekonomikoa ematea erabaki zen Castellon espetxeratuta dagoen Pedro Jose Etxeberria Lete, bere semea ikustera martxoan egindako bidaiari neurri batean behintzat ordaintzeko. Apirileko bidaiari ere ordaintzeko diru berdina ematea erabaki zen.
- Euskera Batzorde Informatzaileraren proposamenez, Ohiana Garitano, Ainhitze Etxeberria, Koldo Eriz, Nerea Uzin eta Aiora Elizbururi bakoitzari ordaintzea, "Txatxilitxatxi" egitasmoan begirale modura egindako lanarengatik.

2000ko maiatzaren 2an egindako ohiko saioa

Beste askoren artean erabaki hauek hartu ziren:

- PP eta EH ko bi mozio aurkeztu eta gero Batasun Zibilen Udal Erregistroa sortzeko, EHren mozioa onartzen da EAJ-PNV (bost), EH (hiru), PSE-EE(bat) EA(bat) eta PPko batzarkideren aurkako boto batez..
Hauek dira Batasun Zibilen Udal Erregistroaren puntu inportanteenak:

Ø **Batasun Zibilen Udal erregistroak izaera administratiboa du.**

Ø **Elkarrekin bizi diren bikote ezkongabeko aitortpenak jasoko dira bai sexu berekoenak edo desberdinakoak.**

Ø **Batasunen kideetako batek gutxienez Soraluzen erroldatua egon beharko du.**

Ø **Udal erregistro hau jakitera emanen da bakarrik eta bereziki ondoko honetara: batasuneko kideetako edozeinek edo Epaile edo Justizi Epaitegiek eska dezaketen haien izen emateen ziurtagirietan.**

Ø **Soraluzeko Udalean ezkongabeko batasun guztiak eta izena emana dutenak erregistroan ezkonduetako batasunak duten kontsiderazio juridiko eta administratibo bera izango dute.**

Ø **Erregistro honek Udalaren idazkaritza nagusiaren menpe egongo da eta izen emateak eta luzatu daitezkeen ziurtagiri guztiak dohainekoan izango dira.**



Erretegi
Jatetxea
ESOZIA
Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

MENDIZABAL OKINDEGIA



Kalebarren, 10 -Tlf: 943752091
Baltegieta, 6 -Tlf: 943751399



Gobernu bartzordeak

Eduardo Pombar

2000ko maiatzaren 8an egindako ohiko saioa

Gobernu batzordeak ondorengo erabaki hauek hartu zituen aho batez:

- 25.000 pezetako diru laguntza ematea "Txurumillo K.T" elkarteari Irukurutzeta eguna ospatzeko.
- 713.000 pezeta ordaintzea **Jaietako Danborradaren antolatzaileei**.
- Batzokiko taberna daraman Juan Vicente Ruiz Cachori baimena ematen zaio Plaza zaherlean mahiak eta aulkiak ipintzeko, zehaztutako 40928 pezetako tasa ordaindu behar duelarik aurrez.
- **Ohiana Aizpuru Txurrukari** laguntza ekonomikoa ematea erabaki zen Madrilen espetxeratuta dagoen Lourdes Txurruka Madinabitia ikustera apirilean egindako bidaia neurri batean behintzat, ordaintzeko.
- **Electricidad Lau C.B.**ren bi aurrekontu onartzen dira .Bat 159.556 pezetakoa Baltegietan semaforo berria jartzeko eta bestea 476.190koa Ezoziko Ama hiribidean argiteria berria jartzeko.
- **Osakidetzako Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeko Gerente jaunaren** idazkia herri hau igandeetan erizaintza postu batez hornitzeko egindako eskaera ukatuz, ez dagoelako, bere iritziz, aipatutako postua sortzeko behar adina eskari.

2000ko maiatzaren 15an egindako ohiko saioa

- Gobernu batzordeak gehiengoz erabakitzen du EAJ(bi), EA(bat) eta Hbko batzordekidearen aurkako botoz, Rabal kaleko 1. Zenbakian kokaturiko Amutxastegi Lantegiaren eraikinean hogeita bi etxebizitza egokitzeko, Batzorde honek 1998ko maiatzaren 11an emandako baimena, 2001 maiatzaren 11 rarte luzatzea " Promociones Suquia S.L." ri aipatutako hirigintza baimenean ezarritako baldintza berberekin.
- Kultura eta Gaztedia Batzorde informatzailearen proposamenez 450.000 pezeta ordaintzea erabaki zen aho batez **Ezoziko auzoko jai antolatzailei**.



*Aurtengo Ezoziko jaiak aurreratu dituzte.
Ekainaren 17 eta 18an izango dira.
Ikusi 19. orrialdeko Pil Agenda*

- Txoko kafetegia daraman **Maria Rosario Uzin Aldazabali** mahiak eta aulkiak jartzeko baimena eman zaio, 41032 pezetako tasa ordaindu behar duelarik aurrez.

Kontulan Aholkularitza, S.L.

Santa Ana, 13 1.ezk.
Tlfnoa: 943751782

20590 Soraluze

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE



Liburuaren eguna

6. maila A-ko ikasleak

Liburuaren eguna ospatzen da, Miguel de Cervantes eta William Shakespeare bi idazle urte eta egun berean hil zirelako, 1616. urteko Apirilaren 23 an. William Shakespeare-ek ingelesez idatzi zituen bere ipuinak eta Miguel de Cervantes-ek berriz gaztelerez.

William Shakespeare, Stratford Upon Avon-en jaio zen. Gizon hau ingelesezko literaturako idazlerik gorenetakoa da. William Shakespeare-ek liburu edo obra famatu batzuk idatzi zituen. Hauen artean Romeo eta Julieta, Othelo... daude. Hauetako asko antzestu egiten dira oraindik ere.

Miguel de Cervantes Alcalá de Henares-en jaioa zen. Oso bizimodu gogorra izan zuen. Soldadu lehenbizi, Argelen esklabu gero, 58 urte bete arte ez zen bere idazlanengatik fama-tua egin. "El ingenioso Hidalgo, Don Quijote de la Mancha" idatzi zuen eta betirako ohorea lortu zuen. Hauekin pelikulak eta marrazki bizidunak egin dira.

Euskaldunok berriz, ez dugu luzaroan hizkuntza idatzirik izan, gure kulturak gehiago jo duelako ahozko literaturara: bertsoak, kanta zaharrak, kondairak....

Orain dela urte batzuk, Errioxako San Millan de la Cogollako monastegian aurkitu zuten orain dela 1.000 urte inguruko latinezko testu baten ertzetan euskaraz eginiko apuntetxo bat, bi lerrotakoa, eta baita ere gaztelaniaz eginikoa. Ordurarte latinez bakarrik idazten zen Europa osoan.

1.545ean berriz, Beñat Etxepare-k idatzi zuen lehenengo liburu osoa euskaraz. Idazle hau elizgizona zen, antzinako idazle gehienak bezala.

Orain idazle asko daude Euskal Herrian, eta liburu asko argitaratzen dira: Aitor Arana (Urtegi misteriotsua), Bernardo Atxaga (Asto bat hypodromoan), Juan Kruz Igerabide (Pikoak), Mariasun Landa (Kleta bizikleta), Jon Suarez (Eta alkatea?), Iñaki Zubeldia (Maddi oporretan), eta beste askoren artean gureak ere.

Apirilaren 14an liburuaren eguna ospatu behar genuela eta astean zehar eskolako kortxoan pistak ipini zituzten "Liburu galdu baten" izenburua asmatu genezan. Ez zuen inork asmatu, baina ala ere pozik aritu ginen liburuaren arrastoa jarraitzen.

Egun hori iritsi zenean 1. eta 2. mailakoek liburutegian ipuin baten kontaketa izan zuten.



William Shakespeare

1.545ean , Beñat Etxepare-k idatzi zuen lehenengo liburu osoa euskaraz

3. eta 4. mailakoek berriz "Hizki salda" jolasa izan zuten. Emandako letrekin hitz bat osatu behar zuten.

5. eta 6. mailakoek "Entziklopediak dantzan" izeneko jolasa egin zuten. Sobre bat aukeratu ondoren bertan zeuden galderei erantzun behar izan zitzaientz entziklopedietan informazioa aurkituz.

Bukatzeko opari bezala liburu bat eman ziguten baina guk instrukzioen bitartez osatu behar izan genuen. Gela bakoitzerako 2 opil, jolasetan parte hartu zutenentzat ere bai.

Aholkuak

6. maila A-ko ikasleak

Aspaldi hontan, aholkuak gora, aholkuak behera ibili garela lantzen egunero bai gelan, zein etxean eta noski, kalean ere, AHOLKUAK ematea iruditu zaigu bidezkoena.

Baina, kontuz! Aholku hauek ez dira nolana hikoak.

Begira ba:

- Eskolako harautegia

1.- Bederatziak baino beranduago iritsi eskolara

2.- Gelara sartzerakoan ez jo aterik.

3.- Eguneon esatea sorte txarrekoa da.

4.- Gure eguneroko lanari ekingo diogu "Pipia jo eta dantzan egin!".

-Hondartzan

Hondartzarako tramankuluak antolatzen: tranpolina, telebista, ohea, Nivea, ordenagailua,... eta nola ez, koinata eta amaginarreba mailetoan ahaztu gabe.

Lorea De Castro: "I WILL SURVIVE..."

Autobusaren geltokixan ixa ezetz esateko aukerarik barik kontatu doskuz Loreak bere bitxikerixa eta kontuak bere lagun eta bestelako plaentxiarren begiradapean.

Gururu

-Egiguzu zure erretratu bat...

Beno ni Lorea De Castro naiz, 15 urte dittut, ointxe DBHko laugarren maila ikasten nabil eta momentu honetan gabiz pentsatzen datorren urtian ikastera nora joan bihar garan eta prematrikulak eta eitten.

(Zuek ez begiratu! - esaten dotse noizian behin ikaskideei; baina ez dau emoten larri daguanik..)

-I love you...

Interneten agertu dan birusa da,infektatzen ordenagailu mordua dittu eta gero pilua kostatzen da konpontzia.

-Zer erreko ziñuke betiko San Juan suetan?

Aurtengo liburuak

(Halako baten hor agertzen dia eskolako lagun gehixao kiroldetitik...honek be adarra jo nahixan... -Eee! Lorea bihar autografua sinatu biharko doskuzu eee?)

*“San Juan suetan
aurten, liburuak
erreko nittuzke”*

-Eskatu hiru desio

Osasun ona edukitzia, nota onak etartzia eta familia guzti-andako osasun eta zoriona

-Gustuko kantu bat

I will survive...

-Usain berezi bat

Larrosa batena

-Lore mota bat

Larrosa horia

-Ze janari ezin dozu tragatu?

Almejak

(Guk gustora asko jango giñukez ta hurrenguan Lorean onduan jarriko gara maixan)

-Ze eitten dozu beste erremedixorik ez dagualako?

Ikasi

-Zeinek merezi dau monumentu bat plaza barrixan?

Plaentxiar guztiok

(Dan danok ez gara kapiduko,baina tira...erantzuna edarra izan da)



Lorea De Castro

-Errespetu handixa merezi dau...

Beste pertsonak errespetatzen dittuanak

-Amets arraroren bat

Ametsian matematikako erroketak agertzia

(Uda gertu daguala eta espero deigun erroketok alde batera lagatzia, eguzkia eta oporrak gozatzia eta ikastetxe berrirako salto hori hanka onakin emotia,Zorte on!!)

(Bukatzeko gustoko oparia zein daben galdetu ostian bere erantzuna lorak izan danez, **Pil-Pileanekook** topau dogun larrosa hori bakararra erregalatuko dotsagu.)




Ondo igartzen ez bada ere, larrosa horia da



PASCUAL CHURRUGA S.A.
Tornilleria estanpada

Errekalde 21
telef. 943751600 eta 943751604
Faxa 943 752461 20590 SORALUZE

En la edición de esta publicación colabora



fundazioa
fundación

Saunier Duval taldea jaun eta jabe 3. Soraluze sarian

Joan zen maiatzaren 14 an jokatu zen 23 urtez azpikoendako Soraluze sarian, David Herrero suertatu zen garaile helmugan

E.U./X.K.

Joan zen maiatzaren 14 an jokatu zen 23 urtez azpikoendako Soraluze sarian, David Herrero suertatu zen garaile helmugan.

Lehendakari Sarirako puntuagarri den froga honetan, parte hartu zuten 173 txirrindulariek 212 Km egin behar izan zituzten. Berez kilometro kopuru handia zela eta, lasterketa gogorra bazen, egun hartan egin zuen beroak izugarri lastu zuen txirrindulariek egin beharreko lana eta nahiko lan izan zuten ibilbideko mendate eta aldapa gogorrak (Asensioko Gaina, Areitio...) igotzen, horren adierazle da 70 txirrindularik bakarrik lortu zutela helmugara iristea. Helmugara lehenengo iritsi zena David Herrero izan zen eta bigarren iritsi zena Jonathan Gonzalez, biak Saunier Duval taldeko kideak. Taldekako sailkapenari dagokionez ere, Saunier Duval taldeak lortu zuen lehenengo postua. Saribanaketa Plaza Berrian egin zen eta bertan izan zen omendua, txirrindulari izandako herritar bat, Felix Etxaniz. Arrate Azkona atleta gazteari ere, oroigarri bat eman zitzaion atletismo munduan egiten diarduen lorpen garrantzitsuak saritzeko. Besterik gabe, eguraldi eguzkitsua eta ederrak lagunduta amaitu ziren sari banaketa eta gainontzeko ekintzak.



Taldekako sailkapenean Saunier Duval taldea Felix Etxaniz omenduaekin batera

Bestalde, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete Pil Pileanen bitartez, aurten ere beste urte batzuetan bezain borondatez, txirrindulari froga hau antolatzen lagundu duten, talde, erakunde eta norbanako ugariei. Antolatzaile izan den txirrindularitza taldekoen partez eskerrikasko denoi !

Zigor Alberdi eta Jon Oregi lasterketaz lasterketa

E.U./X.K.

Zigor eta Jon, aurtengo denboraldian zeharo murgilduta, lasterketaz lasterketa dabilta poliki poliki forma hartzen. Jonnek dagoeneko afizionatu mailako 14 lasterketa korritu ditu, tartean 2 buelta (Buelta Bidasoa eta Arabako Buelta) ere bai. Oraindik forma fisikorik onena harrapatu gabe dago, izan ditu-

en erorketa eta istripuek moteldu egin dute eta, pixkat bere prestakuntza. Zigorrek ere, 7 lasterketa baino gehiago korritu ditu, gehienak Lehendakari Sarirako baliagarri direnak (Soraluzekoa esaterako) eta Jon bezala oraindik ez dago forma betean. Biek ere, udaran lasterketa asko korritu behar omen dituzte eta ordurako indarrak puntu puntu izatea espero dute.



Zigor Alberdi helmugan sartu zen soraluzeko lehen herritar eta bakarra izan zen



Felix Etxaniz omendua eta Juan Mari Oregi antolatzailea laisterketa bukatu ostean



Pelota

Herriko hiru bikote Deba Arroko txapelketako finalera

Herriko pelotariak garaipen oso garrantzitsuak lortu dituzte azken hilabeteetan. Lorpenik handiena edo sonatuena agian, Oñatin jokatu zen Deba Arroko Txapelketako finalean, herriko hiru bikote sartzea izan da.

E.U./X.K.

Final haundian, Azagirre eta Txurrukak nagusitasun osoz irabazi zuten partidua eta kadete mailako txapeldun gelditu ziren. Elizburu eta Jauregik ere erreztasun haundiz irabazi eta hauek ere jubencil mailan txapela lortu zuten. Nagusien mailan berriz kale egin zuten Laskurain eta Herizek eta maila honetan Eibarko bikote indartsuak lortu zuen garaipena. Beste txapelketa askotan ere hartu dute parte herriko pelotariak. Hona hemen lortu dituzten garaipenik garrantzitsuenak:

Azagirre-Errarte (Ezkoriatza) Kadeteak: Zaramagako (Gasteiz) Txapeldunak.

Goikoetxea-Txurruka: Mungiako "Trobika" Txapelketako Garaileak Txurruka eta Azagirrek aurrera jarraitzen dute Elgetako lau terdiko txapelketan.

Deba Arroko txapelketan hiru bikote finalera:

Azagirre-Txurruka Kadeteak Txapeldunak

Elizburu-Jauregi Jubencilak Txapeldunak

Heriz-Laskurain Nagusiak Txapeldun-ordeak

Laskurain Abadiñon Banakako Txapelduna

Laskurain 1.mailako Federazio Artekoko Txapelketan (Gipuzkoa ordezkatzuz) Txapeldunorde

Oharra: Klean jendeak egin dituen galdera batzuri erantzunez, zera argitu nahi lukete pelota taldeko arduradunek: "Agustin Txurruka, gaur eguneko pilota eskolako delegatua, 1.994-ko ekainaren 2-an egin zen "Pilota-Eskola-ko" zuzendaritzako partaide eta 1.996-ko urtarrilaren 1-etik dugu talde honen delegatua."



Soraluzeko hiru bikoteak garaikur eta txapelekin Oñatiko finala jokatu ostean

nek: "Agustin Txurruka, gaur eguneko pilota eskolako delegatua, 1.994-ko ekainaren 2-an egin zen "Pilota-Eskola-ko" zuzendaritzako partaide eta 1.996-ko urtarrilaren 1-etik dugu talde honen delegatua."

Futbola



Soraluze F.T.-ko erregional taldea

Xuban Katalan

Soraluzeko futbol taldeentzat amaitu da denboraldia nahiz eta artikulu hau idaztean dugunean taldeei partidu bat falta, beraz iritxi da unea beraien denboraldiaz hitz egiteko.

Erregionalak Kilimonen aurkako partiduan lortutako garaipenaren ondorioz lortu zuen kategorian mantentzea, denboraldi bukaeran batez ere asko sufritu ondoren. Jubencilak azken partiduetan garipenak lortu arren ezin izan diote kategoriari eutsi eta bigarren mailara jaitsi dira azkenik kadetei buruz hitz egin behar dugu, aipagarria bait da beraiek egin duten lana txapelketa guztian zehar.

Jubenilen eta erregionalen ibilbidea txapelketan antzekoa izan da nahiz eta azkenean zorionez nagusiak ez duten kategoriala galdu. Denboraldi haseran bi taldeek garaipenak lortu zituzten baina denboraldia aurrera joan ahala partiduak galtzen hasi ziren eta sailkapeneko zuloan sartu ziren. Erregionalak

sailkapeneko atzeko postuetan ibili arren mantentzea lortu du baina jubencilak ez eta datorren denboraldian jubencilen bigarren mailan jokatu beharko dute. Orain artekoa irakurririk badirudi denboraldia txarra izan dela klubarentzat eta hau ez da honela izan hor izan bait ditugu kadeteak sailkapeneko aurreko postuetan.

Albertok entrenatzen dituen mutilak izugarriko denboraldia jokatu dute, beti egon direlarik sailkapeneko aurreko postuetan eta gainera berain partiduak ikusi ditugunok asko gozatu dugu "futbola" egiten bait zuten.

Bukatzeke Pil-Pileanekoaldetik zorianak erregional eta kadetei eta animoak jubenteei badakigu eta ze arazo izan dituzten denboraldi guztian zehar. Datorren denboraldirarte agur esaten diogu futbolari eta ea datorrenean zerbait irabazten dugun denon artean.

Agur **FUTBOLA**.



**Txatxilitxatxi programak
arrakasta handia izan du**

*Txatxilitxatxiko
begirale eta gaztetxoek
Elosura egin zuten irteeran*

Udaleko Euskara Batzordeak, Euskararen Biziberritze Planaren barruan, martxoko apirileko asteburuetan zehar martxan jarri zuen umeentzako Txatxilitxatxi aisialdi programak, erantzun oso ona jaso du herriko neska-mutikoengandik. Programa honen helburua, herriko gaztetxoenei aisialdia euskaraz gozatzeko aukera ematea izan da. Horretarako, haurrak zaindu eta dibertitu dituzten begiraleak ere, herriko gazte euskaldunen artean aukeratu dira. Bere lehenengo fasean lau larunbatetako iraupena izan duen programa honek, uztailan izango du jarraipena, eta berriz ere halakoxe partehartze zabala izatea espero du. Ea halaxe den !

**180 Dantzari baino gehiagok parte hartuko dute
maiatzaren 14 ko Euskal Jaian**

E.U.

Maiatzaren 14 an, domekan, egingo da 2.000 Soraluzeko Euskal Jaia. Urtero bezala egitarau aberats eta erakargarria osatu dute Euskal Jai batzordeko kideek eta izango da zer ikusia ugari, goizean hasi eta iluntze parterarte. Goiz partean dantzarien kalejirarekin hasi, eguerdian haurrak etxe eta soziedadeetara eraman eta arratsaldean azken dantza saioaren ondoren aterako diren pottoka eta zezentxoekin emango zaio amaiera egunari (egitarau osoa Pil Agendan). Aurten 180 dantzari gazte baino gehiago bilduko dira herrian. Beti bezala, inguruko herrietako dantza taldeak izango dira euskal jaiaren parte hartuko dutenak; Antzuolako Oinarin, Arrasateko Loregazteak eta Txikitxu, Bergarako Xamatx, Aretxabaletako Loramendi eta nola ez herriko Urrats dantza taldea. Dudarik



*Arratsaldeko dantza saioa Plaza Zaharrean egingo da beti bezala
barik, eguraldia alde bada (eta hori San Pedroren esku dago)
egun zoragarri bat igarotzeko parada emango digu Euskal
Jaiak soraluzetar eta soraluzetar ez diren denek.*



**Pagopie antzerki taldea eta
informatika ikastaroa izan
dira maiatzean**

Pagopie antzerki taldea "Mendigaineko Etxola" antzeztzen

Pil-Pilean elkarteak, AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Plaentxi H.I.k, DBHK eta Udalak elkarlanean antolatutako kultur ekimen sortaren barruan, Pagopie antzerki taldeak Herri Ikastetxean eskeinitako "Mendigaineko Etxola" antzeslana eta Gorka Prieto infomatikan adituak eman duen informatika ikastaroa burutu dira maiatzean.

**Musika eskolako ikasleak
Hondarribiko musikaldira**

Soraluzeko musika eskolako ikasleak, urtero urtero Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako musikari gazteak batzen dituen Hondarribiko Musikaldira joan ziren maiatzaren 20-an. Goizeko ekitaldian, musika eskola bakoitzak bere saioa egin bazuen, arratsaldean denek batera osatu zuten saioa. Soraluzeko musika eskolatik, flauta, gitarra, soinu, konjuntso instrumental, korua etab.. joan ziren. Aipatzekoa da, koruan parte hartzen duten 5 Soraluzetarrek Euskadiko abesbatzarekin jarduten eta jardun zutela Hondarribin ere.

Oharra

Musika eskolan matrikulatzeko epea zabalik dago:

Maiatzaren 29tik ekainaren 9ra bitartean.

Izena Musika Eskolan bertan eman beharko da (*Ikastolan*).

Animatu!!!!



Bizkarreko minak

Zoritxarrez berriro ere oso ondo ezagutzen ez dugun gure gorputzaren atzeko aldeaz hitz egin beharrean aurkitzen gara. Egia esan oso arrunta da gure gizartean bizkarreko minez dagoen norbaitekin topo egitea.


Onegi

Izan ere, oso komplexua da eta gure bizkarraldearen eta hau osatzen duten estrukturen funtzionamendua. Funtzionamendu komplexu hau dela eta erraz sor daiteke desorekaren bat eta desoreka horren eraginez sortzen zaizkigu bizkarreko minak.

Lehenik eta behin ikus dezagun nola osatua dagoen gure bizkarrezurra: bizkarrezurra 33 hezurrez osatua dago eta bere funtzio garrantzitsuenaz, gorputza eutsi (gogorra izan behar du, hezur indartsuak), mugimendua eman behar du, gorputzaren grabitate zentrua egonkor mantendu behar du (muskulatura indartsua) eta bizkar muina babesten du hezurrez inguratuta (bertebren zuloa). Honetaz gain bi oinetan ibiltzeak dakarren egokitzeagatik S gisako forma du goitik behera.

Bizkarreko mina arrazoi askoren ondorioz etor daiteke: mugimendu bat asko errepikatzearen, posizio desegoki-

etan denbora luzean egotearen, bertebra arteko diskoen iritazioaren eraginez... hau dela eta, arriskutsuak diren faktore batzuk bereiz ditzakegu:



Bizkarrezurrako zehaztasuna

Nekea, mugimendu errepikatuak eta posizio desegokia mantentzea bizkarreko minen eragile nagusiak.

-Ingurugiro arriskua: hautsa, kea, gaskak, hotza, beroa, zarata...


-Lan kargarekin erlazionaturiko arriskuak: nekea (fisikoa naiz psikikoa), mugimendu errepikatuak, posizio desegokia mantentzea...

-Psikologiarekin erlazionaturikoak: lan organizazioa (ordutegia, deskantsuak...), lanean pertsonak duen erresponzabilitate maila, nagusiekin duen tratua...


-Beste batzuek: gizona izatea, ahurdunaldia, tabakoa, adina, sexua...

Beraz, bizkarreko minik etor ez dadin, garrantzitsua da, arriskutsuak diren faktore hauek ahal den neurian txikiagotzea eta horretaz gain garrantzitsua izan daiteke muskulaturaren indartze eta flexibilizatzea.


Bizkarra osasuntsu mantentzeko zenbait ariketa



Belauniko eginbeharrekoa



Basalbaren ariketa (abdominalak)



Hetzanda eginbeharrekoa

SAN ANDRES

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

TLF: 943751646

RABAL 2 SORALUZE

ARANE

Kiroldegia



Tel: 943752466



Entsalada latz



Aitorrena

Egunak beroagoak izaten hasten diren urte sasoi honetan, gure eguneroko otorduak aldatzen ditugu, jaki freskagarriagoak jaten hasten gara, eguneroko berotasunari ihez egin nahian edo. Hil honetako errezeta, ondo osatutako entsalada duzue, eta hori bai fresko freskoa.

Nola egin:

Oilasko petxuga xerra mehe batzuetan moztu. Era berean apioa eta ardi gazta ipini eta entsaladera baten jarri. Diluitu ontzi baten mahonesa saltsa oliba olioarekin. Beste ontzi baten diluitu, mostaza eta antxoa pasta ozpinarekin batera, sardexkarekin nahastu, mahonesa entsaladarekin nahastu eta dena oilaskoa eta gazta dagoen entsaladerara bota.

Oharra: Gazta botatzea ez da beharrezkoa errezetak daraman osagaiek oso zapoetsuak dira eta.

Osagaiak: (4 pertsonentzat)

- Egositako bi oilasko petxuga
- Lau apio adar
- 50g ardi gazta erdi ondua
- Mahonesa saltsa goilarakada bat
- Ozpin ardo txuridun goilarakada bat
- Oliba olio goilarakada bat
- Dijon mostaza goilarakadatxo bat
- Antxoa pasta goilarakadatxo bat

On egin!!

ETXEKIT
COCINA Y BAÑO

Luis F. Beristain

Mobiliario cocinas y baño
Coordinación de gremios
Armarios empotrados
Puertas y suelos
Electrodomesticos

C/Arrillaga s/n. ELGOIBAR. TIF: 943 74 43 47

EUSKAL OKELA

JABIER ALBERDI
HARATEGIA

CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO

Errebal kalea 24
tlf noa: 943751932

GILA TABERNA

OSO GIRO ONA!!

SALAZAR
Altzariak

Altzariak-Apaindurak
Sukaldeak- Elektratresnak

Errekalde 7 Telefonoa/faxa:943752388
20590 Soraluze



Garai bateko argazkixa



Patxi Bigotes herrixan egon zanakua

Soraluze-Placencia de las Armas Monografía Histórica. Ramiro Larranaga

Egoitz Unamuno

Argazki honetan, Espainiako Diktadore izan zan Francok 1.941. urteko irailaren 14 an, Soraluze-Placencia de las Armas egindako bisittia ikusten da. Diktadoriari Alejandro de Calonge gerentziak eta Jose Sirvent ingeniario-buruak lagundu zotxen tailarretara egin zeban bisittan.

Beittu zelako argazkixak sartzen dittugun argazkirik bidaltzen ez doskuzuenian ! Hurrengorako animatu eta ekarri argazki zarren bat. Zaindu eta bueltatuko dotsugu.

Lehiaketa berria

Zer dago faltan zer soberan...

Zer dago faltan zer soberan Gabolatseko Arregia dorretxe-ate-aurrean?

Erantzuna baldin badakizu deittu bildurrik barik gure telefonora, eta zure izen abizenak emon. Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke. Deittu segittuan!!

Telefonoa: 943 75 13 04

Aurreko lehiaketaren irabazlea

Jose Luis Mendizabal





Ibilixan ibilixan bertso eskolia

Egoitz Unamuno

Aurtengo otsailian sortu zan Ibilixan Ibilixan bertso eskolan, kantu, bertso eta koplak artian, adin askotako 25 neska-mutikok baino gehixagok parte hartzen dabe. Hainbeste ikaslerekin, ia bihartuta, hiru talde osatu dira; Txibiri, Pioner eta Episkop taldiak hain zuzen be. Asteazkenetan, ostiraletan eta larunbatetan emoten ditzuzte "eskolak", eta bertan, lehengo eta oraingo bertsolari ezagunen berri jaso (Xenpela, Lazkao Txiki, Egaña etab.) eta euren bertsorik ezagunenak eta beste herrikoi batzuk kantatzen ditzuzte (Triste bizi naiz eta, Psaiako plazatik, etab...) poz-pozik. Eskola barruan kantatziak gain, torikumak hegan ikasi aurretik apixatik urtetzen daben moduan, urten dabe eta urtengo dabe sarri-sarri:

Erramu saltzen etxez etxe

Egunen baten, ahal darian, danak batera egingo daben bazkarirako dirua batzeko, erramu bezperan erramu saltzen ibili ziran etxez-etxe, honek bertso bixok kantauaz.

*Apaizak esan dosku
erramuk saltzeko
bertso eskolarako
dirua batzeko
hogei duro behinpein
trankil eskatzeko
ta gehiago daukanai
gehiago kentzeko
ta eskerrak emonaz
beti amaitzeko.*

*Erramu saltzen gatoz
aingeruen gisan
bihar bedeinkatzeko
apaizak elizan
osasuna nahi bozu
eduki bizitzan
erramuak erosi
tontua ez izan
osasuna karua
dauanik ez esan.*

Doinua: Bizkaiko txerriarenak

Soraluzeko txirrindulari proban bertsuak txirrindularixeri

Maiatzian jokatu zan txirrindulari proban, Ibilixaneko ikasliak bertsuak kantau zotsezen txirrindulari eta batez be txapeldun suertatu zanari, bertan batu zan jentian gizamenerako.

Ibilixaneko lau ikasle eskolarteko bertsolari txapelketan... danak Azpeitiako finalean

Eneko Beretxinagak, Ikerne Laskurainek, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako

Oñatiko kanporaketan parte hartu dabe idatzizko sailian. Bertan gaixa " " izan zan eta bakoitzak hiruna bertso idatzi zittuan. Bestalde, ekainaren 2 xan Azpeitxian izango dan finalera ikasle danak juango dira autobus bat alkitatuta.

Ibilixaneko bertsolarien bertso antzerki bi ekainan 3ko bertso afarixan

Ibilixaneko ikasliak, bi bertso antzerki preparatu ditzuzte Pil Pileanek eta Udalak elkarrekin antolatu daben kantu afarixan antzezteko. Etorri eta zeuek epaittu !

**Abade ta alkate,
kirolari ta tunante,
mozkor ta antzeko
jente, kontuz ibili zai-
tzezte, bestela bertsu-
ak derrepente! kon-
tuz !**



Erramu saltzen ibili ziranetako Ibilixaneko ikasle batzuk "lanak" amaittu eta gero

Horoskopua

Ygarten Ygartendotela

ARIES martxoaren 21etik apirilaren 21era

Buruan ageri zaizun tontortxo pare granok besterik ez direla egiaztatu beharko zenuke. *Pil-eguna: 17*

TAURUS apirilaren 22tik maiatzaren 21era

Beti horren burugogor jarraitu behar al duzu? Ezetz esaten zaizunean ezetz da! *Pil-eguna: 9*

GEMINI maiatzaren 22tik ekainaren 21era

Adorez beteta egingo diozu aurre Ekainari, Adorez 3 (Sinonimo eta antonimoen hiztegia) eskuetan duzula. Nola nahi dituzu bestela azterketak gainditzea? *Pil-eguna: 22*

CANCER ekainaren 22tik uztailaren 22ra

San Juanak direla eta ez direla bero bero ibiliko zara. Erre gabe ibili behintzat. *Pil-eguna: 24*

LEO uztailaren 23tik abuztuaren 22ra

Beti hasarre ibiltzea ere ez da osasungarria, hartu bizitza lasaiago! *Pil-eguna: 6*

VIRGO abuztuaren 23tik irailaren 22ra

Benetan antzu izango da hilabete hau zuretzat amodio kontuetan. Ohitura bihurtzen ari al da? *Pil-eguna: 11*

LIBRA irailaren 23tik urriaren 22ra

Buruari buelta asko ematen diozun horietakoa zara. Lasai egon, ingurukoek asko maite zaituzte eta... *Pil-eguna: 29*

ESKORPIO urriaren 23tik azaroaren 22ra

Hezurretako mina nabari duzula? Kirol gehiago egingo bazenu (eta kirol esatean kirol esan nahi dut). *Pil-eguna: 14*

SAGITARIUS azaroaren 23tik abenduaren 21era

Ez zaitetz hain zekena izan! Diruari hainbeste begiratzen segitzen baduzu Osintxura joango zara kanping egitera azkenean... *Pil-eguna: 10*

CAPRICORNIUS abenduaren 22tik urtar. 20ra


Ez duzu etxetik irtetzeko gogo haundirik izango, konpainia ona topatu besterik ez daukazu. *Pil-eguna: 2*

ACUARIUS urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra

Ura asko gustatzen zaizula ez dago esan beharrik, baina oraindik itsasoa hotzegi dago bainatzeko, ximur ximur eginda amaitu behar duzu orraitio! *Pil-eguna: 20*

PISCIS otsailaren 21etik martxoaren 20ra

Nahiago duzu ehizatua izan, ehizan ibiltzea baino. Ez zara ez makala azpijokoetan! *Pil-eguna: 28*





Hileko Pil-Agenda

Maitzaren 3an martitzena

Irudipunak

Arratsaldeko Setan
Mattin eta Ixabel Agirrsarobe

Ekainaren 2an barixakua

Kantu Afaria

Herriko taldeak baturik Kantu festa. Herritar danei partehar dezaten dei egiten zaie. Txartelak tabernetan.

Ekainaren 4ean domeka

Pintura Lehiaketa

Goiz osoan
Udalak antolatua. Herriko bazterrak *artistek* nola margotzen dituzten ikusteko aukera aparta

Ekainaren 7an eguztena

Diapositiba emanaldia

Arratsaldeko 7 t'erdietan
Ion Arretzek *Nepal Bizikletaz* ikusentzutekoa eskainiko du. Baltegieta udalaren lokaletako gela urdinean.

Ekainaren 9an barixakua



Bizkaiko koplazaharrak

Gaueko 10etan
Xabier Amurizaren saio aparta. Baltegieta, udalaren lokaletako gela urdinean.

Ekainaren 18an domeka

Finalista Eguna Ezozin

Goizian:
Mendi bueltia Karakate aldera.
Meza Ezoziko Ermittan
Saldia eta txorixua
Domina banaketia
Bazkarixa jatetxi (txartelak Soziedad Deportiban)
Atsaldian:
Umiendako jolasak

Ekainaren 20tik Uztailaren 1era

Viet-Nam erakusketa

Aitor Galbarriarturen argazki erakusketa ikusgai polikiroldegian. **Kontrargi**



Maiatzaren 28-xan Euskal Jaixa

Goizian
9: 45-etan Herriko txistularixen kalejiria.
10: 30-etan Talde gonbidatuari ongi etorria.
11:30-etan **Dantzari eta txistularixekin kalejiria herrixan** zihar.
13:30-etan Dantzari etxietara banatuko dira frontoian.
14:00-etan Txistulari eta arduradunen poteua Larreategi trikitilarixekin
Arratsaldian
17: 00-etan **Alardia Plaza Zarrian**
18:30-etan **Pottokak**

Ekainaren 23an San Juan Gaba

Estazioan
22:00-etan **Sua piztea**
Ondoren, Txokolatadia eta Kintanillarekin erromerixia. Plaza Berrixan
21:30-etan **Herri Afaritxo Plaza Berrixan**
23:00-etan **Sorginak Sua piztu eta urteko oroitzapen txarrak erre**
Sorgin Dantza
Sorgin Edarixaren banaketa
Trikitixa, txistua, alboka eta txalaparta denak alaitzeko
Beste hamaika sorpresa
(Plaza Berriko ekitaldixan parte hartu nahi izanez gero jo Pil Pilean edo AEK-ra bildurrik barik)

Ekainaren 16, 17 eta 18 xan Ezoziko Jaixak 2.000

Barikuan (ekainaren 16xan)

23:00 -etan TAPIA ETA LETURIA ren kontzertua
3:30-etan Txokolataria

Zapatuan (ekainaren 17xan)

16:30-etan Mus eta Truk Txapelketia (izen emoteko bertako txosnan)
21:00-etan **Herri afarixa** (txartelak kaleko tabernetan, Ezozin eta Armendi eskuratu)
23:30-etan ENE BADA ren kontzertua

Domekan (ekainaren 18xan)

Goizian:
-Mendizalieri eta auzokeri eskeinitako mezia
-Ondorenia saldia eta txorixua danendako.
-Talogiliak talo egitten eta saltzen.
-Finalista eguneko domina banatzia.
-M. LUJANBIO eta J. M. IRAZU BERTSOLARIXAK
Auzokoendako eta mendizaliendako bazkaria.
Atsaldian:
HERRI KIROLAK
Umiendako jolasak (zaku karrera, kaxkara batzia...)
BOLO TXAPELKETA
Egun guztixan zihar UNAI (Mendotz) eta ENAITZ (Argateburu)



JAIOTAKOAK

Marta Rivero Ballesteros
00-04-15
Asier Ruiz de la Cuesta Cifuentes
00-04-17

HILDAKOAK

Maria Rosario Oregi Lascunain
Josefa Gabilondo Mecolalde
Juan Laskurain Olabarria
Julia Zulaica Velez
Andres Eguren Ibañez
Jose Amor Aria
Aurelio Parolo Rojas
Maria Carmen Etxeberria
Arizaga
Felisa Solozabal Atiaga
Claudio Bouzas Delgado
Manuel Otero Rivas

EZKONDUAK

Ez da ezkontzatik izan

DEITU 943 75 13 04


**ETA UTZI ZURE MEZUA
APIRILAREN 15A BAINO
LEHEN.**

TELEFONO INTERESGARRIXAK

Udaletxea943 753043
Faxa943 753112
Udaltzaingoa943 753024
Bake Epaitegia943 751989
Arane Kirolegia943 752466
Osasun Etxea943 752259
Larrialdiak-Elgoibar943 743354
Larrialdiak- Donostia943 461111
Zabaleta Botika943 751384
Escala Botika943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea943 752330
Zaharren Egoitza943 751136
Soraluze Kirol Elkarteak943 751029
Plaentxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza943 751544
Lehen Hezkuntza943 751937
Soraluze DBH Institutoa943 752365
Euskaltegia -AEK-943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	.943 753017
Taxia943 751993/ 607 220808
Postetxea943 751947
Apaiz Etxea943 751370
Ertzaintza -Bergara-943 765340
SOS Deiak112

ILARGIAREN ALDIAK

Ilberria




Ekainaren 2a

Ilgora



Ekainaren 9a

Ilbetea



Ekainaren 16a

Ilbera



Ekainaren 25a

ZORION AGURRAK

Gorka Etxabe Amoros 12 urte

00-04-18

Zorionak Txikito !

Nekane Jauregi Manzano

00-05-18

Zorionak ! Gure partez ! (?)

Pedro Lete Lacuesta 40 (+)

00-05-16

Zahartzen ari haiz Pedri !

Iker Amezua Isasi

00-05-06

Zorionak eta urte askoatarako!

Ane Larreategi 17 urte

00-05-02

Rubia zorionak ! (zure mutila)

Jose Cortes 27 urte

00-06-06

Zorionak ! Ondo pasa, txintxoia izan.

Kuadrilakoak.

Aitzbea Agirrebeña 27 urte

00-06-16

Zorionak ! Ondo pasau, ea noiz agertzen zaren herritik. Kuadrilakoak.

Valeriano Madrid

00-06-08

Zorionak ! Zahartzen ee? Etxekoak.

Rosarito Zabaleta

00-06-23

Zorionak ! Ondo ondo pasu eta gutxi gastau. Etxekoak.

Oharra

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.

Ez bazaizue Pil Pilean aldizkaria etxera heltzen deitu 943 75 13 04 zenbakira eta esan zein den zure zuzenbidea, bestela eskatu Udaltzaingoa eta emango dizute.

Gertaera salatu edo txalotzeko :
943 75 13 04. Izen abizena beharrezkoa

TXALOAK

Apirilean Ane Muroren deia jaso genuen erredakzioan, eta zera zioen: "Oso interesgarria iruditu jata Gazte txoko atalean argitaratu dozuen *Berdinak gara* artikuloa. Oso gai interesgarria uste dot dala eta hain neskato eta mutikoa gazteak bertan azaltzen duten pentsamoldea txalotzeko modukoa da. Segi horrela, zorionak!!"

MEZEN ORDUTEGIA

Astegunetan: Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)


Larunbatetan: Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

Igande eta jai egunetan: Goizeko 9:00tan (Gaztelaniaz), 11:00tan (umeneztat euskeraz) eta 12:30tan (elebiduna)



Zuen hildakoen eskela, eskerrona edo urteurrena jarri nahi baduzu, oraintxe duzu aukera Pil Pileanen.

943 75 13 04



9.600 Pta.



8.850 Pta.




2.350 Pta.



*Graduatutako
eguzkitako
betaurrekoak*

9.500

*pta-tik
aurrera*



ESKLUSIBAN

Scooter 1

DENDA BAKOITZEKO

5.000 PZTAKO EROSKETA BAKOITZEKO TXARTEL BAT

Zozketa



R.P.S. 164/99 Aka.

**MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA

J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA



El establecimiento online, visitando el sitio
MULTIOPTICAS.com, permite acceder a una amplia
variedad de productos y servicios.




¡Descubre el 80 años de experiencia de MultiOpticas!




**DOINU
GOGORRAK
EIBARTIK**



**ÑACO GOÑI
BLUESA
ZUZENEAN**



**KEU
DISKA BERRIA**



**FOLK KUBANOA
DANTZATZEKO**



TEL: 943 73 30 16



**EZKER ALDEKO
AIRE ROKEROAK**



*Ikerrek ikasketak
euskeraz egingo ditte*

*Matrikulatu zure
seme-alabak
D ereduan*



**Aldizkari honek Soraluzeko Udalaren
dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko**

